



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/02

EGUNA: 2024/02/29

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:35

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

Kontuhartzailea: Jesus Mendizabal Mendizabal

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagozkion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zaizkio 2024ko urtarrilaren 31an egindako osoko bilkuraren akta, onar dezan.

Gilen Gariak adierazten du 4. aztergaiari, Deba Musikal Patronatuaren zuzendaritza batzordeko bokalen izendapenari buruzkoa, bukaeran jasotzen dela *«Gilen Gariak azaltzen du proposamenarekin bat datozela, baina, jakin nahiko zutela zeintzuk izan diren eragile horiek aukeratzeko arrazoia»*, baina berak galdetu zuena izen zela *«ea zein izan den arrazoia hilabete horietan guztietan izendapena ez egiteko.»*

Alkateak adierazten du berak ere baduela zuzenketa bat, 7. puntuan, aurrekontuari buruzkoa, amaieran, etxebizitza planerako aurreikusitako zenbatekoa dela eta, hau jasotzen dela *«Alkateak erantzun dio inbertsioak altxortegiko gerakinarekin osatuko direla, eta etxebizitza planerako Ekain enpresaren 14.000 euroko aurrekontu bat dutela, eta horren arabera jokatu dutela.»* eta aurrekontua ez dela 10.000 eurokoa, 14.000 euro ingurukoa baizik, BEZarekin, 17.080 euro.

Aipatutako zuzenketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2024ko urtarrilaren 31an egindako osoko bilkuraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Gariak azaltzen du EH Bildutik badituztela hainbat zalantza.

- 2024/68 Dekretua: *« Debako diagnostikoa eta etxebizitza plana egitea.»* Dekretua Batzordea bildu baino astebete lehenagokoa da, eta Batzordera gaia erabakita eraman zen, beste behin, eta bere galdera dela Lurraldetasun Batzordean alkateak hartutako konpromisoak non geratzen diren. Euren eskatu zutela, kontuan hartuta eginiko proposamenaren azterketa sozio-ekonomikoarekin lotutako hainbat gauza egin behar zirela, eta jakinik, bai Auzo Udalarekin bai EH Bildu taldearekin aurrekontuetako negoziazioan konpromiso hori hartu zela, proposamena izan zela azterketa sozio-ekonomikoa egitea lehenbizi eta, horrela, tarte bat ematea etxebizitza plana egiteko aurrekontu horretan ekarpenak egin ahal izateko. Batzordean galdetu zuela ez erabakita ote zegoen, eta alkateak erantzun ziola baietz erabakita zegoela. Horrela, jakin nahi duela ea aukera ote dagoen ekarpenak aldaketaren bat sorraraziz gero, aldaketa horiek egin ahal izateko.

Alkateak erantzuten dio Batzordean bertan adierazi ziotela hitz egingo zutela enpresarekin galdetzeko azterketa sozio-ekonomikoa eragina izan zitekeen etxebizitza planean, eta horrela egin zutela, eta hurrengo egunean harremanetan jarri zirela enpresarekin, alde aurretik planaren azterketa egin duen teknikariarekin, azaldu ziotela zegoen kezka, eta erantzun ziola bi plan erabat desberdinak direla eta datu ekonomikoek ez dutela zer ikusirik etxebizitza planarekin. Horiek horrela, gaia bere baitan mantentzea erabaki dutela.

Gilen Gariak adierazten du kezka sortzen diola, behin eskera eginda kontsulta hori egiten bada, esker onez jasoko zutela jasotako erantzuna komunikatu izana, baina ez zaiela ezer adierazi. Azterketa sozio-ekonomikoa aurretik egiteko proposamena ezjakintasunetik eginiko proposamena izan zela, zegoen kontsulta luzatzeko, baina, etxebizitza plana erabaki estrategikoa denez, ekarpenak egiteko aukera izan beharko luke, behin baino gehiagotan



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

aipatu dutenaren harira, Dagigun prozesuan argi geratu zela gauzak egiteko beste modu bat dagoela, kooperazioaren eta elkarriketaren bidetik. Horrela, aintzat hartuta etxebizitza plana Herri Antolamendu Planeamendu Orokorra baldintzatuko duen azterketa bat dela, eta datozen urteetan etxebizitza alorrean hartu beharko diren erabakiak baldintzatuko duen azterketa eta plan egin behar denean, ia herritarren erdia ordezkatzeko duen alderdia zer esan eduki badaukala. Gero, esandakoa kontuan hartuko ote den ala ez beste kontu bat dela, baina zer esanik badutela. Horregatik, berriro galdetzen duela ea etxebizitza planean ekarpenik egiteko aukerarik izango ote duten ala ez.

Alkateak erantzuten dio lehenik ikusi beharko dela etxebizitza plana zein den, eta hori bukatu ondoren horri egin ziezazkiola ekarpenak. Ez duela ikusten ekarpenak noiz egin nahi duten. Zer egin nahi ote duen, zeintzuk izango ote diren aztertu beharreko puntuak? Horrela balitz, ba ote duen ekarpenak egin ahal izateko diagnosiren bat? Ea aztertu duten, pasa zitzaizen proposamenetik kanpo zer aztertu beharko ote zen?

Gilen Garciak adierazten du Batzordean bertan adieraz zuela bera ez dela gai horretan aditua, baina, gaia landu egin beharko zuela hori buruz dakitenekin kontraste bat eginez. Gai horrekin lotuta, aurrekoan, mahai gainean jarri ziren hainbat herritako etxebizitza planak, hemengoan eta kanpokoak, kostaldekoak eta barne aldekoak, turismoa zutenak eta ez zutenak. Euren ustez, hausnarketa hori egin behar da plana egin aurretik, bestela gerta daiteke plana egin ondoren hainbat gauza faltan botatzea, eta denok ados egonez gero, beste kontratazioa egin beharko zen. Hausnarketa aurretik eginez gero, kontratuko den planak kontuan hartuko ditu adostutako guztia.

Prozeduraren aldetik legezkoa dela aitortzen du, baina horrela lana egitea ez dela erraza: informazioa irakurri, gogoetak egin, proposamenak egin, eta abar. Hori guztia seriotasunez eta egoerak eskatzen digun ardurarekin lantzeko, hobe litzatekeela batzordera eramatea, eztabaidatzea, eta ondoren erabaki. Gehiengo absolutua dutela eta erabakia berdin-berdin har dezaketela, baina, batzordera erabaki baino lehenago eraman. Kasu honetan batzordearen bilera eguna baino astebete lehenago kontratatuta zegoela. Horiek oso detaile zatarrak direla, eta eurek ere lanerako daudela.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- Onartzea, hala badagokio, ordenantza fiskalen aldaketa.

Alkateak gaia azaltzen du, eta Antolakuntza Batzordeak gai horri buruz 2024ko otsailaren 19an emandako irizpenaren berri ematen du.

Udalbatzak, aho batez, hasierako onespina ematen dio ordenantza fiskalen aldaketari. Aldaketen testua akta honen I. eranskinean jasotzen da.

4.- Onartzea, hala badagokio, TAO ordenantzaren aldaketa.

Alkateak azaltzen du aldaketa Udaltzaingoren proposamen baten ondorio dela, eta horren xedea dela ordenantzan bertan jasotzea TAOren arau-hausteen zehapen sistema trafikoa arloko arau orokorra aplikatu beharrean. Gai hau ere 2024ko otsailaren 19an aztertu zela Antolakuntza Batzordean, eta aldeko irizpena jaso zuela.

Bozketan egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du TAO ordenantzaren aldaketa. Aldaketaren testua akta honen II. eranskinean jasotzen da.

5.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udalaren 2024/1. kreditu aldaketa.

Alkateak azaltzen du Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua Debako aurrekontu kontsolidatuaren parteenez, Debako Udaleko Osoko Bilkurari ere dagokiola kreditu aldaketa hori onartzea.

Auzo Udalako Juntak, 2024ko otsailaren 15ean eginiko bileran, Auzo Udaleko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketa onartu zuela, hau delarik aldaketa horren laburpena:

GASTUAK.

Sortuko diren partidak:

- | | |
|------------------------------------------------------------------------|-------------|
| 1. Burugorri Ostatuko komunaren irisgarritasun lanak bideratzeko | 25.000,00 € |
| 2. Zabalsoro frontoiko aldagelak berritzeko | 25.000,00 € |
| GASTUAK GUZTIRA | 50.000,00 € |

FINANTZAZIOA:

Altxortegiko soberakina	50.000,00 €
-------------------------------	-------------

Bozketan egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du Itziarko Auzo Udalaren 2024/1. kreditu aldaketa.

6.- Berrestea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udalaren erabakia Itziarren eskola berria sortzeko eskaeraren buruzkoa.

Alkateak Itziarko Auzo Udaleko Batzordeak, 2024ko otsailaren 15ean eginiko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren berri ematen du, Itziarren eskola berria sortzeko eskaeraren buruzkoa, eta azaltzen du prozedura kontuak direla medio, eskaerak aurrera egin dezan, beharrezkoa dela Udalbatza honek erabaki hori berrestea. Erabakia, hitzez-hitz, horrela dio:

«2022-2023 ikasturtea geroztik lehen hezkuntza urtez urte Itziarko eskolan gauzatzen da. Luzaro ikastetxeko gela desplazatu gisa.

2023ko abenduan herriko plazako kontzeju etxea izeneko eraikinean birgaitze lanak hasi dira. Obrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak bideratu ditu Itziarrek eskolak emateko eraikina izan dezan.

Obrak urte beteko iraupena izango dute eta ondoren gelak hornitu beharko dira. Hori horrela, 2025-2026 ikasturterako prest egongo dira eraikina eta gelak. Eta horrekin batera nahitaezkoa da ordurako Itziarko eskola berria sortuta izatea.

Hori dela eta, eskola berria sortzeak dakarren prozedura izapidetzea beharrezkoa da.

Horiek horrela, Itziarko Auzo Udaleko Batzordeak, aho batez ERABAKITZEN DU, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzea Itziarren eskola berria sortzeko behar diren urratsak eman ditzala, 2025- 2026 ikasturterako Itziarrek eskola propioa izan dezan.»

Bozketan egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du berrestea Itziarko Auzo Udalaren



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

erabakia, Itziarren eskola berria sortzeko eskaerari buruzkoa.

7.- Onartzea, hala badagokio, M8-Emakumearen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala.

Alkateak adierazpena irakurtzen du.

Edurne Aristik adierazten du urtarrilaren 29an egin zen Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordearen bileran komentatu zela adierazpen bat eramango zela plenora, eta eurek eskatu zutela ea posible izango ote zen adierazpen horren lanketan parte hartzea ekarpenak egin ahal izateko. Pleno deialdiarekin batera adierazpenaren proposamen jaso dutela eta ez dutela aukerarik izan ekarpenik egiteko ezta gaia lantzeko ere gaurko bileraren aurretik. Gilenek komentatu duena harira, gustatuko litzaiekeela ekarpenak egin ahal izatea gaiak plenora ekarri aurretik, eta gai horrekin lotuta, badutela ekarpen txiki bat egiteko. Horrela, proposatzen du Udalak hartzen duen konpromisutako batean aldaketa txiki bat sartzea, hain zuzen emakumeen ikusgarritasun soziala sustatzeari buruzkoa, eta horrela, «**Emakumeen ikusgarritasun soziala sustatzea ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz , gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta**» jasotzen duen tokian, beste hau jasotzea proposatzen du: «**Adineko emakumeen, emakume etorkinen eta paperik gabekoen ikusgarritasuna sustatzea, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.**»

Udalbatzak, aho batez onartzen du proposatutako aldaketa, eta, horrenbestez, horrela geratzen da adierazpena:

Martxoaren 8 - Emakumearen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten

oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealtatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Debako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketaguneak babestea**, ahalduz feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Adineko emakumeen, emakume etorkinen eta paperik gabekoen ikusgarritasuna sustatzea**, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza**-moduetan arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak** ezagutaraztea.
- Udal-ekumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealtatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerririk emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea**.



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du M8-Emakumearen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala.

8.-Eskari eta galderak.

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

8.1.- Gilen Garciak azaltzen du Lurraldetasun Batzordean EH Bilduk eginiko hainbat galderei astelehenerako erantzuna idatziz helaraziko zitzaiela agindu zietela, baina ez dutela ez mezurik ez erantzunik jaso, eta hori nabarmendu nahi duela. Ondoren Batzordean eginiko galderak gogoratzen ditu.

Alkateak esaten dio ez diola erantzun galdera guztien erantzuna oraindik ez duelako. Dakiena kontatuko diola:

- Kanalako tabernaren kontua, sententzia bat eman zela Udalaren alde, eta horren ondorioz erretiratu beharko du baimenik gabe jarritako terraza. Horretarako, bi hilabeteko epea eman zitzaien eta epearen luzapena eskatu dute, atzeko terrenoaren jabearekin harremanetan daudela terreno hori erosi eta eraikigarritasun arazoa konpontzeko. Udalak oraindik ez duela eskaera horri erantzun, baina, seguruenik, erantzuna izango dela erretiratu dezatela atxikitutako elementu hori.
- Kanalako kurbaren harira, ez dakiela zehatz mehatz epeak zeintzuk izango diren, baina, Aldundiak hasita dagoela obra horrek ikutzen dituen terrenoen jabeekin espropiatzeko harremanekin, eta Udalak berak ere, inguru horretan duen lursail bati zenbat metro kenduko dioten, eta horiengatik, zenbat kobratuko den zenbatekoaren berri jaso duela.
- Amillagako UJParen alegazioak erantzuteko epearen harira, alegazio horien inguruan Grupo Eibarrek txosten bat egin beha duela, eta ez dagoela oso argi horiek erantzutek eperik ba ote dagoen. Eta gai horren inguruan, UJParen behin betiko onarpena ematea zeini dagokion ere galdetu zutela, eta idazkariari galdetuta, esan diela eskumena alkatearena dela.

Eta beste galderen erantzuna oraindik ez duela, eta galdera guztien erantzuna idatziz helaraziko diola

8.2.- Gilen Garciak galdetzen du komunikazio zerbitzuaren esleipena zein puntuan ote dagoen.

Alkateak erantzuten dio esleipen horretako pleguak idazteko prozesua hasita dagoela, eta oraindik amaitu gabe daudenez, kontratu txiki baten bitartez luzapen txiki bat egingo dela.

8.3.- Aritz Larrañagak azaltzen du otsailaren 20an Herritartasun Batzordean jorratu zen puntu bat izan zela Altxa Burua ekimenak proposatutako proiektuari atxikimendua eta diru laguntza bat ematea. Ulertu zutela, nahiz eta aurrekontuetan horretarako dirurik ez egon, kreditu aldaketa bat egin zela eta proiektua garatuko zela, eta eurekin harremanetan jarri direla adierazteko proiektuaren koste osoa ez zutela jasoko. Horrela kezka sortzen diela Batzordean aldeko botoa eman zutelako eta euren prestasuna adierazi zutela kreditu aldaketaren aldeko botoa emateko, eta hurrengo urteko aurrekontuetan ere proiektu horretako partida bat egotearen aldeko botoa emateko. Horrela, gai horren azalpenak eskatzen ditu.

Alkateak erantzuten dio arazoa egon dela pasatako zifretan, berak jasotako zifrak izan zirela Herritartasun Batzordea eraman zituena, eta horrela adierazi ziela, aho batez onartuta izan zela, proiektua oso interesgarria iruditu zitzaizela denoi, eta kreditu aldaketa bat egingo zela dirulaguntza eman ahal izateko. Horren berri eman ondoren, beste mezu bat jaso zuela ez zirela 2.400 euro, baizik eta 4.000 euro zirela. Lehen mezuan jasotako zenbatekoa kalkulatzeko prozesuaren zati bat baino ez zela kontuan hartu, eta bigarren mezu bat bidali zutela hori zuzentzen. Bere erantzuna izan zela batzordean 2.400 euroko aurrekontua onartu zela, eta batzordetik pasa gabe ezin ziela hori baino gehiago ziurtatu. Datorren urteko aurrekontuei begira aurrekontu osoa hartuko zela kontuan, baina aurtengorako bera bakarrik ezin zuela erabaki.

Horrela, orain plenoan erabakitzen bada 2.400 euro jarri beharren 4.000 euro jarriko direla eta kreditu aldaketa egingo dela, bere alderdiaren aldetik ez dagoela inolako arazorik.

Aritz Larrañagak azalpenak eskertzen ditu, eta adierazten du ez dakiela gaia plenoan edo batzordearen hurrengo bileran aztertu beharko den, baina eurek ere aldeko botoa emateko prest daudela.

Alkateak erantzuten du, Herritartasun Batzordea martxoko bileran gaia berriro ere pasatuko dela, eta bera harremanetan jarriko dela eurekin adierazteko diru horrekin kontatu dezaketela, baina Batzordetik pasatu behar dela.

Besterik ez dagoenez, 19:35etan alkateak amaitutzat ematen du osoko bilkuraren bilera, gogoratuz, martxoko osoko bilkuraren bileraren data aste bete aurreratu zela Aste Santua delata.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/02

EGUNA: 2024/02/29

I. eranskina

3.- Onartzea, hala badagokio, ordenantza fiskalen aldaketa.

1. Jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

B) epigrafean «Udal konpetentziadun beste zenbait» ondoko tasa hauek gehitzen dira:

Udaltzaingoaren istripu-txostenak	32,45
Zehapen espedienteen kopiak	15,86
Animali arriskutsuen lizentziak	212,62

HILERRIA: FAMILIA KOLUNBARIOAK

F) epigrafean «Artzabalko udal hilerrian ematen diren zerbitzu tasak» ondoko hauek gehitzen dira:

Kolunbario familiarren emakida	120
Kolunbario familiarren urteroko kuota	30
Kolunbario familiarretan ehorzketa eta desobiratzea	70
Kolunbario familiarrak: plaka	280
Lekualdatze tasak (Amillaga- Artzabal):	
– Kolunbario indibidualera	70
– Kolunbario familiarrera	50

IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA ERRETIRATZEA

I) epigrafea «Ibilgailuen ibilgetze eta erretiratzea» horrela geratzen da idatzia:

1. Ordenantza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

En el epígrafe B). «Otras materias de competencia municipal» se añaden las siguientes tasas:

Atestados de accidentes de la Policía Local	32,45
Copias de expedientes sancionadores	15,86
Licencias de animales peligrosos	212,62

En el epígrafe F) «Tasas por la prestación de servicios en el cementerio de Artzabal» se añaden las siguientes:

Concesión de columbario familiar	120
Cuota anual de columbario familiar	30
Inhumación y exhumación en columbario familiar	70
Columbarios familiares: placa	280
Tasas de traslado (Amillaga- Artzabal)	
–A columbario individual	70
–A columbario familiar	50

El epígrafe I) «Inmovilización y retirada de vehículos» queda redactado de la siguiente forma:

Ibilgailu mota	Ibilgailua ERRETIRATZEA	Ibilgailuaren ZAINKETA	Ibilgailua IBILGETZEA	Ibilgailua IBILGETZEAGATIK gainerako egunetan
----------------	-------------------------	------------------------	-----------------------	-----------------------------------------------

		gainerako egunetan	(lehen 24 ordu)	
Bizikletak / Bicicletas	9,57	2,12	4,77	2,02
Ziklomotorrak / Ciclomotores	Zerbitzuaren kostuaren arabera / Según coste del servicio	4,20	15,17	3,93
Motozikletak, trizikloak, moto-gurdiak edo antzekoak / Motocicletas, triciclos, carros de motos o similares		4,20	29,20	3,93
Turismoak, kamioiak eta antzekoak, 3.000 kg-ra artekoak / Turismos, camiones y similares hasta 3.000 kg		15,84	58,18	14,75
Gainerako ibilgailuak / Resto de vehículos		15,84	72,78	21,89
3.000 kg-tik 7500 kg-ra bitarteko ibilgailuak / Vehículos de 3.000 a 7500 kg.		47,16	218,01	43,69
7500 kg-tik gorako ibilgailuak / Vehículos de más de 7500 kg.		47,16	218,01	43,69

2. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.

B) epigrafearen «Ibilgailuak espaloietan zehar finken barrualdera sartzea eta horien aparkamendu-erreserba bide publikoan» 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

	<u>Orduko</u>	<u>Eguneko</u>
Aparkalekuak, oinezkoentzako gunek, espaloiak, etab. okupatzea obretarako, zamalanetarako, etab., 10 metro edo frakzio bakoitzeko	2,10	25,00
	<u>Partziala</u>	<u>Osoa</u>
Kaleak, espaloiak edo antzekoak moztea, orduko	13,69	20,59

C) epigrafea «Feria eta herri jaietako postuak» horrela geratzen da idatzia:

2. Ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

El apartado 3 del epígrafe B) «Entrada de vehículos al interior de las fincas a través de las aceras y reserva de aparcamiento de los mismos en la vía pública» queda redactado de la siguiente forma:

	<u>Por hora</u>	<u>Por día</u>
Ocupación de aparcamientos, zonas peatonales, aceras, etc. para obras, carga, descarga, etc. por cada 10 metros o fracción	2,10	25,00
	<u>Parcial</u>	<u>Total</u>
Corte de calles, aceras o similares, por hora	13,69	20,59

El epígrafe C) «Puestos en ferias y festejos populares» queda redactado de la siguiente forma:



DEBAKO UDALA

2024SPLE0002

2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

10 m² arte 50 €/eguna
10,01 m²-tik 25m² arte 75 €/eguna
25,01 m²-tik 100m² arte 100 €/eguna
100 m² tik gora 250 €/eguna

Tarifak aplikatzeko arauak:

Jaietako esparruko lurak adjudikatzeko enkante sistema erabiliko balitz, enkante hori kasu bakoitzean Udalak onartuko dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo da.

Hasta 10 m² 50 €/ día
Desde 10,01 m² hasta 25m² 75 €/ día
Desde 25,01 m² hasta 100m² 100 €/ día
Más de 100 m² 250 €/ día

Normas de aplicación de las tarifas:

Si para la adjudicación de terrenos de los recintos feriados, se utilizara el sistema de subasta, ésta se celebrará con arreglo a las bases y condiciones que en cada caso acuerde el Ayuntamiento.



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/02

EGUNA: 2024/02/29

II. eranskina

4.- Onartzea, hala badagokio, TAO ordenantzaren aldaketa.

**DEBAKO HERRIKO GUNE ARAUTUETAN
IBILGAILUAK APARKATZEA JABEGO
PUBLIKOA ERABILI EDO APROBETXATZEARI
BURUZKO ORDENANTZA (TAO)**

**ORDENANZA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN
PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL
DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL MEDIANTE EL
ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS EN ZONAS
REGULADAS DE LA VILLA (OTA)**

**Bi artikulua berri gehitzen dira, honako eduki
honekin:**

**Se añaden dos nuevos artículos, con el siguiente
contenido:**

14. artikulua. Zigor-araubidea

Artículo 14. Régimen sancionador

1. Norbaitek ordenantza honen edozein artikulua edo Alkatetzak ordenantzaren garapen gisa ematen dituen xedapenak urratzen baditu, hori trafiko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko da, eta, ondorioz, zigorrak jarriko dira, legezko prozeduraren bidez.

1) La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

2. Ibilgailuaren titularrak, hala eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidari erantzulea zein den identifikatu behar du, eta dagokion prozedurazko tramitean obligazio hori justifikaziorik gabe betetzen ez badu, berari jarriko zaio 14.3.j) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.

2) El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor responsable de la infracción y si incumpliera esta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado como autor de la infracción recogida en el artículo 14.3.j).

3. Arau-hausteak:

3) Se consideran infracciones:

a) Ordenantza honetan adierazitako tiket edo txartelik gabe aparkatzea.

a) Estacionar sin obtener tique o tarjeta contemplada en la presente ordenanza.

b) Aparkatzeko tiketean agertzen den gehieneko denbora pasatzea.

b) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalado en el tique horario de aparcamiento.

c) Errotazio handiko zonan berriz aparkatzea, aparkatzeko gehieneko denbora bukatu eta bi orduko epea pasatu gabe.

c) Volver a estacionar en zona de alta rotación sin haber transcurrido dos horas desde la finalización del tiempo máximo de estacionamiento.

d) Egoiliarrentzat gordetako gunean aparkatzea, zona horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.

d) Estacionar en zona reservada a residentes sin disponer del distintivo.

e) Ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko Europako txartela edo, hala badagokio, mugikortasun mugatuko pertsonaren bereizgarria agerian ez jartzea.

f) Nafarroa plazan (3. sektorea) aparkatzea ezinduentzako Europako aparkatze-txartelarekin, dagokion aparkaleku-tiketik gabe.

g) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.

h) Ordenantza honetan jasotako bereizgarria behar den moduan ez erabiltzea.

i) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea, eta Udalari ez jakinaraztea (horretarako jarritako epean).

j) Bereizgarrien titularrek ez betetzea helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa.

k) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.

l) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.

m) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea

Alkatetzak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoenen taula bat, bai eta aplika daitezkeen zehapenenak ere. Dena den, arau-hauste horiek modulatu ahal izango dira, gertatzen diren inguruabarren arabera.

15. artikulua. Zigorak eta araubide-neurriak

1. Arau-haustea zehatuko dira urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren V. tituluan eta gainerako lege-xedapenetan, xedapen osagarrietan eta udal-ordenantzetan ezarritakoaren arabera.

2. 14.3 artikuluen a), b), c), d), e), f), g), eta m) puntuetan tipifikatutako arau-haustea 60 euroekin zehatuko dira

3. 14.3 artikuluen h), i), j), k), eta l) puntuetan tipifikatutako arau-haustea 90 euroekin zehatuko dira, eta bereizgarria baliogabetuko da. Horretaz gain, k) eta l) puntuetan jasotako kasuetan, beste bereizgarri berri bat lortzeko ezintasuna ezarri ahal izango da, gehienez ere bi (2) urteko eperako. Hori

e) No colocar en lugar visible la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad, o el distintivo de persona de movilidad reducida, en su caso.

f) Estacionar en Nafarroa plaza (sector 3) con tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad sin el tique de aparcamiento correspondiente.

g) No identificar al conductor responsable de la infracción, previo requerimiento.

h) No utilizar debidamente cualquiera de los distintivos contemplados en la presente Ordenanza.

i) Dejar de cumplir alguno de los requisitos en virtud de los cuales se concedió el distintivo sin comunicarlo al Ayuntamiento dentro del plazo establecido para ello.

j) Incumplir los titulares de los distintivos la obligación de comunicar el cambio de domicilio o transferencia del vehículo.

k) Utilizar el distintivo una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó.

l) Utilizar un tique o distintivo manipulado, falseado, anulado, caducado o no idóneo.

m) Incumplir cualquier otra condición señalada en la presente Ordenanza.

La Alcaldía o, en su caso, el órgano que actúe por delegación podrá aprobar un cuadro de infracciones más comunes en materia de tráfico, así como de sanciones aplicables, sin perjuicio de la modulación a que éstas puedan someterse debido a las circunstancias concurrentes.

Artículo 15. Sanciones y medidas de regulación

1. Las infracciones se sancionarán en virtud de lo establecido en el Título V del texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículo a motor y Seguridad Vial, aprobado por Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre y demás disposiciones legales, complementarias y ordenanzas municipales.

2. Las infracciones tipificadas en los puntos a), b), c), d), e), f), g), y m) del artículo 14.3 serán sancionados con 60 euros.

3. Las infracciones tipificadas en los puntos h), i), j), k), y l) del artículo 14.3 será sancionada con 90 €, y la anulación del distintivo. En los supuestos contemplados en los puntos k), y l) podrá imponerse, además, la imposibilidad de obtener otro nuevo distintivo por un plazo de hasta dos (2)



2024SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2024/02/29

guztia, Ordenantzaren tarifetan ezarritako zenbatekoak eta sor daitezkeen tasak premiamendu-bidez ere ordaintzea eskatzeari kalterik egin gabe.

4. Aurreko bi paragrafoetan adierazitako zenbatekoak Alkateak edo, hala badagokio, eskuordetzaz ariko den organoak berrikusi eta eguneratu ahal izango ditu.

5. Artikulu honetako 2. eta 3. puntuetan adierazitako zehapen ekonomikoei kalterik egin gabe, 14.3 artikuluan tipifikatutako arau-hausteko oztopo larria dira trafikoa eta aparkatzeko zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko, eta, beraz, ibilgailua ibilgetu edota kendu eta horretarako prestatutako lekuan utzi ahal izango dira.

6. Ibilgailua ibilgetzeak edota bide publikotik kendu eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak ordenantza fiskalen xedatutako tasak sorraraziko dituzte, eta ibilgailua jaso aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

7. Ordaindutako aparkaldi-denbora gaindituz gero, salaketa baliogabetzeko tiketa lortu ahal izango da tiketari adierazitako amaiera-orduaren ondorengo bi (2) orduetan, dagokion tasa ordainduta, eta betiere, ordainketa ibilgailua ibilgetu edo erretiratu baino lehen egiten bada.

Salaketa baliogabetu eta dagokion tasa ordaindu egin ahalko da tiketa ematen duten makinatan edo Debako Udaltzaingoaren bulegoan.

años, todo ello, sin perjuicio de exigir el pago, incluso por la vía de apremio, de los correspondientes importes fijados en las tarifas de la Ordenanza, así como de las tasas que pudieran originarse.

4. Los importes señalados en los dos apartados anteriores podrán ser revisados y actualizados por la Alcaldía o, en su caso, por el órgano que actúe por delegación.

5. Sin perjuicio de las sanciones económicas señaladas en los puntos 2 y 3 de este artículo, las infracciones tipificadas en el artículo 14.3 constituyen un grave obstáculo para la ordenación y mejora del tráfico y del servicio público de aparcamiento, por lo que podrán dar lugar a la inmovilización del vehículo y/o su retirada y depósito en el lugar preparado a tal efecto.

6. La inmovilización y/o la retirada del vehículo de la vía pública, así como la estancia de este en los lugares referidos en el apartado anterior, devengarán las tasas previstas en las ordenanzas fiscales, tasas que deberán ser satisfechas en su totalidad antes de la recuperación del vehículo.

7. En el caso de que se haya sobrepasado el tiempo de estacionamiento abonado se podrá obtener un tique de anulación de denuncia durante las dos (2) horas siguientes a la hora de finalización indicada en el ticket, abonando la tasa correspondiente, y siempre que el pago se realice antes de que se haya procedido a la inmovilización o retirada del vehículo.

La anulación de la denuncia y el abono la tasa correspondiente se podrá realizar en las máquinas expendedoras de tique. o en la oficina de la Policía Local de Deba.